

ERAKUNTZA SISTEMIKOARENEN BIDERAGARRITASUNA: GIZA ESKUHARMENAREN KULTURA ETA TEKNOLOGIA

M. Jaione Apalategi Begiristain
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Eskola Erakuntza zientziaren eredu sistemikoa egungo euskal ikastetxearen errealitatea aztertzeko baliogarria izanez gain, etorkizun hurbil zein urruneko euskal hezkuntzak beharko dituen ikastetxe eredu eta motak eraikitzeko balio digun ikuspegia dela uste dugu, eta bere bideragarritasuna ziurtatzeko «giza eskuharmen» sendoa garatzea, ezinbesteko baldintza da. Honek berriz esan nahi du, hezkuntz erakundea den ikastetxetik, euskal hezkuntza eta ikastetxegintzaren naturazko garapena ezagutu behar dela, hauen ikuspegi holo eta psikosoziala ikertuz, eta bide batez guk deritzogun «giza eskuharmenaren kultura eta teknologia».

Además de considerar que el modelo sistémico de la ciencia de la Organización Escolar es válido para analizar la actual situación de los centros educativos vascos, creemos que ofrece una perspectiva útil, tanto para acometer el desarrollo actual como de futuro, de distintos modelos y tipos de centros educativos, precisos para la propia idiosincrasia de la educación vasca. La condición indispensable para asegurar su viabilidad, sería lograr una participación social estable e inquebrantable. Esto significa que el centro educativo como organización que es, deberá tratar de conocer la relación que existe entre el desarrollo natural de la educación y de los posibles modelos organizativos vascos, investigando para ello desde la perspectiva holo y psicosocial de la organización educativa, lo que a su vez también supone investigar la «cultura y tecnología de la participación».

Hormis le fait que le modèle systémique de la science de la Organisation de l'Ecole soit utile à l'analyse de la réalité des centres éducatif basques actuels, nous pensons que c'est une perspective valable pour l'édification des divers modèles et types de centres éducatif qui seront nécessaires à l'éducation basque tant dans un avenir proche que lointain. Une participation sociale forte et stable étant la condition indispensable pour assurer sa viabilité. Cela signifie que le centre éducatif, pris comme organisation, se doit de connaître le développement naturel du système éducatif basque ainsi que ses modes d'évolution, en examinant la culture et la technologie de la dite «participation sociale» d'un point de vue holo et psychosociologique.

1. Eskola Erakuntzaren ikuspegi sistemikoa


Hezkuntza erakuntzaren inguruan hainbat eredu topatzen baditugu ere (APALATEGI 1994: 137-155; Borrel 1989, Husen eta Postelwaite 1992: Vol. 9), guk jarraituko duguna, ikuspegi sistemikoa, onaritzeko hiru ibilbide ziurtatzeko auke-ratua izan da:

1. Eredu honek, eskola erakuntzaren izate bihurri eta korapiltsua sailkatezen lagunduko digulako.
2. Eskola erakuntza, hurbiltasun fisikoz ezagutzen utzi-ko digun eredua delako.

3. Eskola bakoitzari burujabetasunez bidea sendoa erakitzen lagundu dezaiokelako.

Diogunaren sakonera historikoa berriz datorren grafi-koaren bitartez azal dezakegu:

Guk ez dugu ikuspegi sistemikoaren aplikapena buru-belarriz edo, berak daraman «erakuntza» eta «sistema» hitzen azterketa zehatz-mehatzagatik aukeratzen, baizik eta orokorrean egungo hezkuntza-ikastetxegintzaren eremua jo-rratzeko, oso egokia topatzen dugulako eta beraz, Euskal Herikoa bereziki. Beraz, ikuspegi sistemiko honen erabilera



M.J. Apalategi (1. grafikoa)

ez da irtenbide «itxia» bezala ulertu behar «osagarria» baik. Bere bitartez, Eskola Erakuntzaren-EE izate osoz, hezurdiaz zein mamiz jabetu ahalko garela dioguz:

1. elementu eta osagaien funtzionamendua aztertuz.
2. euren arteko erlazio eta mugak azpikatuz;
3. azter urratsak zein metodologikoak eskeiniz (COHEN eta MANION 1990; 331-3519);
4. EE estatikoa, akulturala eta apolitikoa; guztian gainerik «teknologi» botere hutsa bultzatzen duena, ala «teknologi» guztiak «kultura» mota edo kultura nortasun zehatza dutela atzetik diona (WEINERT 1985: 72-1 28).

Aurreko grafikoa kontutan harturik «aukera» berezi bat egitearen aldekoak gera:

Euskal Eskola Erakuntza-EHE zientziak euskal ikastetxera hurbildu edo egokitu dezaken erakuntza ikuspegitik sorturiko eredu sistemikoa oso baliogarria ikusten dugu; baina egungo azterketa bai ikuspegi erakuntza zein botere eta eredu kosmoikuspegiarekin tartekatzea ere ezinbestekoa dela uste dugu.

Bestalde, badugu ere arazoi nagusi bat:

Gure gizartearen giza egoera orokorra eta hezkuntzarena bereziki, berea ez den giza-psikologi ikuspegitik bizi-

rauten eta bere «naturazko» izateari dagokion «egoera» berri bat antolatzeke, bereak dituen kultura ezaugarriak, teknologikoki bihur beharrean dagoelako.

Ahalegin nahasi bezain erakargarria eta bide ziur bezain zuhur honen bitartez, euskal hezkuntza eta ikastetxeak EE-ren kontzientzia eta jabetuntza maila trinkoa jasotzea eskatzen du;


- bere osagai guztien funtzionamendua du;
- euren arteko erlazio eta mugak azpimarkatuz;
- eskola baten hutsuneak atzemanaz;
- hezkuntz aldaketarako prest egoten erakutsiz,
- (...) e.a.

Ikastetxea, gizarteak sorturiko hezkuntz izakundea dugu, Eskola Erakuntzak, gizartearen arlo edo zati batez hitzegitea suposatzen du. Zentzu zabalenean, esan dezakegu, erakuntz ezagumenduak, gaurko gizartearen gorabeherak ezagutu, aztertu eta, bide batez, kontrolatzeko sortuak izan direla.

Azkenik, uste dugu ere, Euskal Herriaren giza-hezkuntza hobe ezagutu eta landu, arazo horien irtenbideak behar duten ezaugera iturriak bilatu eta gure hezkuntz helburu zein helmugak osatzeko, lagungarri izango dugula ikuspegi sistemikoa. Honen ildotik, ikastetxe bat, sistema (LEXICOS DE..., 1991: 480) bezala uler dezakegu, hau da: elkarren zeriak eta zereginak ekingiza osoa bideratzen duten osakin bereiztuen multzo antolatua bezala. Ikastetxeak, sistema baten oinarritzko ezaugarriak adieraziko dizkigu:

1. Osotasuna: Osagai baten aldaketak, besteen modifikapena suposatzen du.
2. Dinamismo: Kanpora zein barriera begitatu, ikastetxeak egitura funtzionala osatu eta «ekintza-motabidea» suposatzen du.
3. Egonkortasuna: ustez, gogoko aldaketak onartu eta egokitu ondoren, bere dinamika egonkortzea bilatzen du.
4. Malgutasuna: alderazketa darama bere gain.
5. Xedetasuna: Helmuga duen asmoa dugu.
6. Feedback: ikastetxearen joanean eta ondorioetan autokontrola ematen da.

Sistema teoritik sorturiko Eskola Erakuntza Sistemiko-EES joerarentzat, erakuntza, suprasistema ingurune hiru aldagai eta sistema barneko, lau azpisistemen arteko elkarrekintzaren eraginpean, helmuga eta helburu zehatzak osatzen duen errellitatearen parte da (PORCEL 1987:58).



M.J. Apalategi (2. grafikoa)

Diogunaren adierazbidea egiteko, irudi grafiko bat asmatu dugu eta beste lan batetan, hemen ez bezala, azpisisistema eta aldagai bakoitzaren azalpenak garatzen ditugu ere (APALATEGI 1994:249):

2. Giza eskuharmenaren ikuspegi psikosoziala

Aurreko atalean garatu dugun Eskola Erakuntzaren eredu sistemikoa gaurko euskal ikastetxea aztertzeako balio-garria izanik gain, *etorkizun hurbil zein urruneko euskal hezkuntzak beharko dituen ikastetxe eredu eta mota ezberdinek eraikitzeako balio digun ikuspegia dela uste dugu*. Baina eginbehar honen bideragarritasuna finkatzeko «giza eskuharmen» sendoa, ezinbestekoa baldintza da.

Eta horixe da hain zuzen ere, giza azpisisistemen artean zein bakoitzaren barne (ekonomia, politika, kultura,... ea.) eta hauen ekintzabidez garapen onuragarriagoak lortzeko sortu diren hainbeste elkargo, bulego, erakunde, izakunde,... e a., giza ikerlariak, aspalditxotik, egiten dituzten baino egitamu errealago eta biderarriagoak esku egitea eskatzen die, gai bakoitza aztertzerakoan dagokion makro zein mikro helburu, helmuga, egitura, teknologia, burokrazia, planifikatzerakoan «holoikuspegiaz» baliatzea eskatzen zaiei, alegia. Errealitate ezberdinak, hobe eta osoago, ezagutzea ezinbesteko baldintza da edozein ekimen aurrea eramatekotan, baino jakin badakigu, errealitatea ikuspegi formal zein ez formalez osaturik agertzen dela, eta giza historian zehar ikus dezakegun bezala, garai batzutan, halako eta ez bestelako, ikuspegi; mota baten hutsunea nabarmenagoa izaten da. Egun, holoikuspegi baten beharrez gain, ikuspegi ez formal edo psikosozialaren hutsune edo aintzagabekeria nabarmena dela esan dezakegu (APALATEGI 1994: 265-268; HUSEN 1978; GROF 1994:205-245, 283-313).

Hezkuntza erakundea den ikastetxetik, ikuspegi holo eta psikosoziala bereskuratzeko, besteak beste, giza eskuharmen adigaiaren izatea menperatu eta bereganatzea eskatzen du, nun ikastetxearen giza eskuharmena, ikuspegi psikosozialetik behinik behin, honela mugaturik geratuko litzai-gukelarik (Medina Rubio 1988a: 475-479,181zk): talde egoera baten helburu aurrean, laguntza eta ardura banatu eta suspertzearen alde agertzen diren pertsonen jarrerazko eragina bezala, hain zuzen ere..

Ikuspegi psikosoziala erabiltzea, edozein errealitatearen «naturazko garapena» osoago ezagutzeko baldintza da, hainbat egoerapean ezabatu edo hiltzorian bizi den errealitate sutsu zein ustekabekoak azaleratzen lagunduz.

1. kultura ondarea
2. arazoaren ezagupen, ardura eta eraginkortasuna,
3. bitalitatea eta sortze energia,
4. egoerazko desberdintasunen areagotzailea,
5. egitasko erreal baten dihur daitezken ustezko ahalbideak; duten helburuak bideragarri, erreal eta orekagarriagoak sortzen lagundu dezakelarik (Medina Rubio 1988:479, 181zk).

Giza eskuharmena azaldu dugun ezaugarri mugatu daitekeelarekin ados gaude, baina edozein ikastetxek, dioguna praktikan jarri aurretik, jakineko zenbait gai aztertu beharko ditu, hots:


- a) Zeintzu dira giza eskuharmena baldintzatu eta adierazgain bihurtzen duten aldagai eta hastapenak.
- b) Zertarako balio du giza eskuharmenak, barne edo kanpo erakuntza ingurugiro bakoitzean.

- d) Noiz eta nola ematen da zerikusi baikorra eskuharmen, emankortasun eta hezkuntza kalitatearen artean?

Erakuntza Sistemikoaren azpisisistemak, aldagai zein eskola erakuntzaren kanpo eta barne baldintzen atal edo aztermailaren arabera (Apalategi 1992), diogun galderak erabilera ezberdinak eta erantzunkizun ugariak eskeinitzeko dizkigute. Baina giza eskuharmenaren filosofia benetan ulertu eta erabiltzen badugu, betik, betetasun edo asetasunak dakarren eman kortasun eta eraginkortasuna berehala sentitu eta ikusi ahaliko dugu ikastetxe osoan (Pascual 1987), maila azberdinetan gainera:

- a) Ikastetxeko biltzar eta lantalde bakoitzaren eginkizunetan zehar, eraginkortasuna zein gobernabilitatea edo egurats aproposak garatuz.
- b) Erkidetasun eraikigarria, egoera tekniko zein arruntetan.
- c) Denbora galtze ezaren sentimendua eta bide batez:
 - gauzak aurrera egiten dutelarena,
 - erkidetzat guztien alde baikorra ezagutu eta baloratu,
 - talde zentzua bizi,
 - lankidetasun hatsa arnastu,
 - taldeen arteko ongitasun edo betetasuna,
 - ekintza ezberdinen arteko osagarritasun iparra,
 - (...)
- e) Aurrejarrera baikorra arduak banatzerakoan.
- f) Aintzindaritasun onartua eta orekatua.
- g) Motibapena edonon.
- h) Gurasoek, hezkuntza aurrean dituzten kezka, galdera trebe (...) ea, etengabeko egokitzapen iturri bihurtzen dira, eta
- i) Oro har, ordezkari, ordezkatzailerak egoki eta onartuak.

EESaren bideragarritasuna, grafikoki azaldu nahi ezke-ro, honela agetuko genuke:



M.J. Apalategui (3. grafikoa)

3. Giza eskuharmenaren kultura eta teknologia

Giza eskuharmenaren izatea, giza kulturaren hainbat aldagaiekin zerikusi zuzena du, beti ere aldagai gizapolitikoetatik hurbil: giza «statusa», kultura maila, gizarte arlo ugarietan parte hartzeko ohitura, eredu politikoaren eragina, gizarte eta politika izakunde arabera (...), eta zuzeneko isla-da izaten du ikastetxe egitura barne.

Adibidez, Euskal Herriko ikastolen bilakaera, ez da egoerazko kulturaren giza politikak eragindako ondorioa..., baizik eta, berezko edo naturazko kultura batek eskatzen duen kontzientziak bultzatutako giza taldeen giza eskuharmenaren eraginez osatutako errelitatea.

Kast eta Rosenzeigen (Medina Rubio 1988b: 481, 191 zk.) antzera, uste dugu, giza eskuharmena, erakuntza sistemikoaren helmuga, balio eta azpisistema psikosoziala, egiturala, teknologiko eta administratiboak elkar erlazionatzeko gai gela. Erakuntzaren sistema teoria orokorrak berriz, giza eskuharmen ikuspegi intelektuala, baikorra eta eman-korra, garatu eta azpisistema guztiekin erlazioaratziko du. Eta beraz, eskuharmena, erakunde bizi eta aldaketa egokigarrietara bideratzen duen egoera bezala ulertu daiteke.

Ikastetxearen betebeharretatik, eskuharmena ez da ordezkariaren zentzu hutsetik hartu daiteken zerbait, baizik eta ikastetxe kulturak gara dezaken teknologia bezala ulertu behar litzateke. Hau da, giza eskuharmen teknologia, kulturaren giza eskuharmen tresna edo bitartekoa litzateke, kultura eskuharmen sakona eta autokonstzientea bezala ulertuz (Medina Rubio 1988:481, 191zk.): biziaren eta hezkuntzaren arazo aurrean eragin, lehentasun, sinismen, asmo, aburu joera eta jarrera multzoa suposatezen du eskuharmenak, une zehatzetan giza talde baten egintza historikoa, ekintza elkarte bati lotzen diolarik» bestalde, eskuharmenak, kultura ez eta teknologia bezala eragiten du «buru bakar bati loturik dauden borondate anitz zentzuaren indarra, eta eskola elkarteari, talde kontzientzia eraikitzea lortzen duelako.

BIBLIOGRAFIA

- APALATEGI BEGIRISTAIN, M.J. (1993). «Eskola Erakuntza eta Euskal Irakaskuntza Bidegurutzean». Gasteiz-Eusko Ikaskuntzaren XII. Kongresua «Euskal Ikaskuntzak Hezkuntz Sarean». Azaroak 29-Abenduak 3
- APALATEGI BEGIRISTAIN, M.J. (1994). Eskola Erakuntza eta Holografia. Tesi Doktorala. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatean. (1996) Iruñea: Pamiela (argitalpenean)
- BORREL, N. (1989). Organización Escolar Teoría sobre las corrientes científicas. Barcelona: Humanitas.
- COHEN, L. eta MANION, L. (1990). Métodos de investigación educativa. Madrid: Muralla.
- DE MIGUEL DIAZ, M. (1994) «La calidad de la educación y de las variables de proceso y de producto». Bilbo Eusko Ikaskuntza Hezkuntzaren kalitateari buruzko ihardunaldiak Martxoak 14-15
- FRABONI, F. (1994). «Las condiciones contextuales de la calidad de la educación». Bilbo: Eusko Ikaskuntza: Hezkuntzaren kalitateari buruzko ihardunaldiak. Martxoak 14-15.
- GROF, S. (1994). La mente Holotrópica. Barcelona Kairós; 1 arg
- HUSEN, T. eta POSTELTHWAITE, T.N. (1992). Enciclopedia internacional de la educación Barcelona Vincens-Vives-MEC; 9 bol.; 1 arg.
- LEXICOS DE CIENCIAS DE LA EDUCACION, (1991) Tecnología de la Educación. Madrid Santillana.
- MEDINA RUBIO, R. (1988) «Estructura y naturaleza de la participación «educativa» eta «Fuentes fundamentales de conflicto en las organizaciones» Salamanca. Revista Española de Pedagogía, 181 zk. eta 191 zk.
- PASCUAL, R. (1987). Liderazgo y participación: mito y realidad. Bilbo, Deusto.
- PETERS, T.J. (1992). En busca de la excelencia. Barcelona: Folio
- PORCEL, T.J. (1987) Introducción a la Psicología de las Organizaciones. Barcelona: Biblioteca Universitaria de Ciencias Sociales.
- SCHUMACHER, F. (1979) Lo pequeño es hermoso Madrid: Blume
- WEINERT, A.B. (1985) Manual de Psicología de la Organización. La Conducta Humana en las Organizaciones. Barcelona. Herder.

Ondorioz, hezkuntz elkartearen kultura nortasuna eta hezkuntz kalitate arazoei, zentzua eman besterik ez da gertatu. Ordez, azken baitan, «izaera» baterazgilerik gabe, oso egin behar desatsegina bihurtzen delarik hezkuntz elkartearen giza eskuharmen zentzua.

Bestalde, guk ere erakuntza zientzilarik askoren antzera, kalitatezko hezkuntzaren oiharria ikastetxe bateko kultura batasuna dela uste dugu (FRABONI 1994: 10 DE MIGUEL DIAZ 1994:19 eta 24), eta honen eragile nagusia «zuzendaria», izan behar dela uste dugu. Are gehiago edozein erakuntz eredu delarik ere, baldin eta bere hezkuntz asmoen garapenerako «zuzendaria» kontutan hartzen ez bada, benetako bideragarritasuna ez du lortuko.

Euskal Herrian berriz eta euskal ikastetxegintzaren ingururik..., zuzendariak bete dezaketen lekua..., gure hezkuntz etorkizunaren txapelketa erabakitzeko adinakoa izan daiteke. Honetarako, zuzendari talde trinko eta erakuntza teoria menperatzen dutenak egokitu beharko dira. Benetako erakuntza azterkariak sortu eta antolatu beharrean aurkitzen garala uste dugu, hezkuntza eta erakuntzaren kultura eta teknologia menperatuko duten talde profesionalen beharrean, hain zuzen ere.

Sheimentzat adibidez (Medina Rubio 1988b: 484,191 zk), gaur egun, ikastetxeko zuzendaria, oro bar, hezkuntz elkartearen kultura joan etorriaren axiologi bultzatzailea bezala ulertu behar da; bere funtsezko zeregina, kultura sortzea litzatekelarik.

Kultura bakoitzaren arabera, giza eskuharmen teknologiko berezia sortuko da. Arazo tekniko zehatz batzuz gain, esan daiteke ez dagoela giza eskuharmen eredu eredugarriarik, hala nola, edozein erakuntzaren neurriari lotu daitekenarik (Schumacher 1979; Peters eta Waterman 1992).

Eta eskuharmenaren izate, muga eta erabileraren garrantzian sinistu barren, ohartzen gara, EE-ren arazo guztiak konpon dezaken tresnaria ez dela ere...